

Eraikuntzaren sektoreak % 8,6ko igoera izan zuen 2019ko laugarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoan


2019ko balantzea % 7,9ko hazkundearekin eta enpleguaren % 3,2koarekin itxi da

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren jarduerak urtetik urterako % 8,6ko igoera nominala (prezio arruntak) izan zuen 2019ko laugarren hiruhilekoan, lan-egutegiko termino homogeneoetan, EUSTATEk landutako datuen arabera.

Eraikuntzaren sektorea hiruhileko horretan igo izanaren arrazoia da bai eraikuntzaren azpisektoreak izandako portaera positiboa (% 8,5 gora egin zuen), baita obra zibilaren azpisektoreak izandakoa ere (% 9,3ko igoera).

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Hiruhilekotik hiruhilekorako terminoetan, sektorearen jarduera 2019ko laugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, urtaroen arabera eraginak zuzendu ondoren, eraikuntzaren sektoreak % 3,2 egin zuen gora. Eraikuntzaren azpisektoreak % 3,1eko bilakaera positiboa izan zuen hiruhileko batetik bestera, eta obra zibilaren azpisektoreak, berriz, % 4,7 egin zuen gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Eraikuntzaren sektoreko enpleguak % 0,2ko igoera izan zuen 2019ko laugarren hiruhilekoan, 2019ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Eraikuntzaren koiunturaren indizea. Euskal AE. Aldakuntza tasak (%). IV/2019

	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	IV 19/IV 18	At/At-1 (1)	IV 19/III 19	III 19/II 19
Produkzioaren Indizea	8,6	7,9	3,2	2,1
Eraikuntza	8,5	8,3	3,1	2,4
Obra zibila	9,3	4,5	4,7	-0,8
Landunen Indizeak	-	-	0,2	-0,3

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako Indizea

2019ko urteko balantzea

2019 osoan, eraikuntzaren koiuntura-indizeak % 7,9ko igoera izan zuen aurreko urtearekin alderatuta, eta hura osatzen duten bi azpisektoreek portaera positiboa izan zuten: eraikuntzak % 8,3 egin zuen gora eta obra zibila % 4,5 igo zen 2018arekiko. Enpleguari dagokionez, langile okupatuen indizeak % 3,2ko hazkundera izan zuen 2019 osoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62